

BIC GIPUZKOA BERRILAN, S.A.

Sozietatearen izena

BIC Gipuzkoa Berrilan, S.A.

IFK

A20470050

Izaera

Sozietate anonimoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Sozietatea eratu zen 1993ko abenduaren 9an egindako eskritura publikoaren bidez, Centro de Empresas Innovadoras - Berrilan, S.A. izena emanda. SPRIK sozietate horretan parte hartzea onetsi zen xedapen honen bidez: [278/1993 DEKRETUA, urriaren 7koa, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuari «Cei-Berrilan, S.A.» baltzuaren baltzu kapitalean parte hartzeko baimena ematen diona.](#)

Sozietateak izena aldatu zuen 1997ko abuztuaren 29an, eta izen hau hartu zuen: Centro Europeo de Empresas e Innovación BIC-Berrilan, S.A.

Amaitzeko, 2001eko uztailaren 24an, Urbiga, Urumea Bidasoaldea Industri Garapenerako Baltzua, S.A. bereganatu zuen, xedapen honen bidez onetsita: [51/2001 DEKRETUA, martxoaren 13koa, Urbiga, Urumea Bidasoaldea Industri Garapenerako Baltzua, S.A. sozietateari irungintzeko baimena ematen diona beste batek xurgatu duelako, eta Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A. sozietateari baimena ematen diona bat egitearen ostean sortutako sozietate berrian parte hartzeko.](#) Sozietateak izen berria hartu zuen, gaur egun duena: BIC Gipuzkoa Berrilan, S.A.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

7022 Enpresa-kudeaketarako beste aholkularitza-jarduera batzuk.

Helburu soziala

Sozietateak xede sozial hauek ditu:

- a) Gipuzkoako lurralde historikoan zerbitzuak ematea eta enpresa berritzaileak sortzea helburu duten ekimenak sustatzea. Halaber, lehendik dauden enpresak biziberritzea, eta haietan berrikuntza eta dibertsifikazioa sustatzea. Zerbitzu horiek honako arlo hauek hartzen dituzte:
- Lurralde historikoan ezar daitezkeen enpresa-proiektuak detektatzea.
 - Prefaktibilitatea ebaluatzea.
 - Ekintzaile potentzialak aukeratzea eta prestatzea.
 - Negozio-plana egiteko aholkularitza ematea eta ikuskapenez arduratzea.
 - Kideak bilatzea eta enpresen arteko akordioak sustatzea.
 - Finantza-baliabideak bilatzen laguntzea.
 - Berrikuntzaren eta teknologiaren alorretan laguntzea.
 - Enpresa berrien mintegia izatea.
 - Industria- eta merkataritza-jardueretarako lokalak eraikitzea, saltzea eta errentan ematea.
- b) Sozietateari dagokion garapenerako beste sozietate batzuetan parte hartzea, akzioen edo partaidetzen bidez, bai sortzeko garaian, bai kapital-gehikuntzetan, bai beste moduren batean eskuratuta.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


EAEk kontrolatutako sozietate ez-finantzario publikoak.

Kapital soziala

1.334.480 €

Kapital sozialaren osaera

SPRI, SA	% 45,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 45,94
Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea, S.A.	% 2,81
Donostiako Udala	% 2,81
Hernaniko Udala	% 2,81
Akzio propioak	% 0,63%



Administrazio Kontseilua

Honako hauek dira 2013ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Aitor Urzelai Inza jauna	SPRI.
Jon Peli Uriguen Ansola jauna	SPRI.
Aitor Cobanera Rodríguez jauna	SPRI.
Jon Peli Uriguen Ansola jauna	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Oscar Usetxi Blanco jauna	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Joseba Amondarain Senperena jauna	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Juan Angel Balbás Egea jauna	DEBEGESA

2013ko ekitaldiko urteko kontuak

[Auditoria-txostena eta urteko kontuen laburpena 2013ko abenduaren 31n.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	5.757.929 €
Ondare garbia	1.696.411 €
Negoio-zifraren zenbateko garbia	8386.813 €
Batez besteko langile-kopurua	12

Sozietatearen helbidea

Azitain industrialdea, 3K - 2. eraikina, 2. solairua - 20600 Eibar (Gipuzkoa)

Webgunea

www.bicberrian.com